

6 Propietateen sinopsia

Dakizun bezala, interakzio elektrikoek substantzien propietateak baldintzatzen dituzte. Beheko taulan, aztertu berri dituzun lotura moten sinopsia jaso dugu.

	Ionikoa	Kobalentea		Metalikoa
Honelako atomoak konbinatzen dira	Oso elektronegatibotasun desberdina	Elektronegatibotasun antzekoa, handia		Elektronegatibotasun antzekoa, txikia
Gas nobleen konfigurazioa lortzeko	Atomo batek elektroiak galtzen ditu → katioia	Atomoek elektroiak partekatzen dituzte		Atomoek balentzia-elektroiak askatzen dituzte, eta horiek elektroihodeia eratzen dute
	Beste batek elektroiak irabazten ditu → anioia			
Honako hauek elkar erakartzen dute	loiak	Partekatutako elektroiak eta atomoen nukleoak		loi positiboak eta elektroihodeia
Atomo berdinek bat egin dezakete	Ez	Bai		Bai
Eratutako substantzia honelakoa da	Kristal ionikoa	Molekularra	Kristal kobalentea	Kristal metalikoa
Adibideak	NaCl, Na ₂ S	H ₂ O, H ₂ , I ₂	C (diamantea), C (grafitoa), SiO ₂ (silizea)	Fe, Mg, aleazioak
	Halita: NaCl 	Iodoa: I ₂ 	Grafitoa: C 	Magnesioa: Mg 
Urtze- eta irakite-puntuak	Oso handiak	Txikiak	Oso handiak	Handiak
Giro-tenperaturan, honelakoak dira	Solidoak	Solidoak, likidoak edo gasak, molekularreko indarren arabera	Solidoak	Solidoak
Portaera elektrikoa	Eroaleak urtuta edo disoluzioan daudenean soilik	Isolatzailerikoa	Isolatzailerikoa, kasu bereziak izan ezik (grafitoa)	Eroale elektrikoa
Gogortasuna eta hauskortasuna	Gogorak eta hauskorak	Bigunak eta elastikoak	Gogorak eta hauskorak	Gogortasun ertaina Harikorak eta xaflakorak
Disolbagarritasuna	Uretan, baldin eta sare-energia oso handia ez bada	Antzeko polaritatea duten disolbatzaileetan	Disolbaezinak	Disolbaezinak

JARDUERAK

- Zergatik dira gogorak solido ionikoak?
- Solido kobalente molekularrek bigunak dira, eta solido kobalente kristalinoak oso gogorak dira. Zergatik gertatzen da hori?
- Zergatik da handia metalen urtze-puntua?
- Solido ionikoak ioiz osatuta daudela aintzat hartuta, zergatik ez dute elektrizitatea eroaten?
- Metalek oso ondo eroaten dute elektrizitatea. Zergatik dute propietate hori?
- Zergatik dira hauskorak kristal kobalenteak?